

Internet bidezko sagardo denda

www.sagardo.com eta www.sidranatural.com helbideetan eros daiteke



Kontsumitzaileak sagardotegi desberdinetako sagardo botilekin osatutako kaxak prestatzeko aukera izango du, sagardo desberdinak probatu ahal izateko.

Guri GARAJALDE IARGAZKI PRESS

• SALMENTAK •

Puntako teknologia iritsi da sagardo mundura ere. Interneten bidez sagardoa saltzeko plataforma egin berri dute Merkatu enpresaren eskutik eta urtarrilaren bukaerarako egongo da indarrean, www.sagardo.com eta www.sidranatural.com helbideetan.

Erabiltzaileek 24-48 orduetan etxean izango dute erosi nahi duten sagardoa, Euskal Herrian, nahiz estatuko edozein puntutan, eta atzerrian saltzeko aukera ere eskaini lezake plataformak aurrera. Sagardo salmenta eta garraioa modu errentagarrian egin ahal izateko ondo osatutako sarea erabiliko du Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak, Idiazabalgo gaztak, txakolinak nahiz Arabako Errioxako ardoak Interneteko salmentarako erabiltzen duten bera.

Web orri berri honetan, sagardotegi bateko sagardo kaxak saltzeaz gain, kontsumitzaileak sagardotegi desberdinetako sagardo botilekin osatutako kaxak prestatzeko aukera izango du, sagardo desberdinak probatu ahal izateko.

Egitasmo honen helburua da Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak 51 sagardotegiei Euskal Herrian nahiz Euskal Herritik kanpo sagardoa modu erraz batean hartzeko aukera eskaintzea eta kontsumitzaileentzat nahi duten sagardoa nahi duten lekuan lortu ahal izateko bitarteko erraz bat jartzea.

Lehen pauso batean 30 bat sagardo desberdin izango ditu kontsumitzaileak aukeran eta gutxi baino lehen sagardotegi guztien sagardoa aukeran izatea aurreikusten du Elkarteak.

TXOTX aplikazioa, eskuko telefonoetarako sagardotegien gida

Orain hiru urte atera zuen Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak Txotx gida, eskuko telefonoetarako Gipuzkoako sagardotegien gida, eta aurrean ere berritu du txotx gidalari berrirako. Erabiltzaileak eskuko telefonora deskargatu beharko du aplikazioa eta hortik aurrera bertan izango du gida praktikoa hau, erabili nahi duen guztirako.

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak 51 Sagardotegien deskribapen, telefono, helbide eta informazioa ez ezik, Sagardogileen Elkarteari nahiz sagardoari buruzko informazio praktikoa asko dauka

aplikazioak, jendeak erraz erabili ahal izateko: sagardoaren historia, sagar eta sagardoarekin egiteko errezetak, Elkartearen inguruko informazioa eta abar.

Aplikazioa euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez dago, bertakoentzat nahiz kanpotik datorren jendearentzat baitago pentsatuta.

Txotx gida eskuko telefonora jaitsi ahal izateko modu asko daude, baina errazena SMS bidezkoa da: Bidali SMS bat TXOTX hitzarekin 215800 zenbakira (atzerrian jasotzeko 659 17 55 22).

GURUTZETA SAGARDOTEGIA, BERRIKUNTZA ETA TRADIZIOA SAGARDO NATUREALEAN



EGUNERO IREKITA, EGUERDIA ETA GAUEZ. IGANDETAN EZIK.

- * 20€ menua astelehen, astearte eta ostegun gauetan.
- * Asteazkenetan otxotea kantuz.
- * Enkarguz eskatu daitezkeenak: Bakailoa saltsan, kostila, Wagyu arrazako txuletak, (munduko haragi onena kontsideratua)

Gurutzeta Sagardotegian. Oialume Bidea. Astigarraga. Gipuzkoa.
Tel./Faxa: 943 55 22 42 • e-mail: gurutzeta@gurutzeta.com • www.gurutzeta.com

